


GAURKO GOGOIA

◆ ETA BEHARRA



El Ararteko (Defensor del Pueblo en el País Vasco) inició su labor en nuestro País un 8 de marzo, exactamente

del año 1989. Fecha especialmente señalada para las mujeres, como indica el autor en su artículo.

Desde entonces, y consciente de la discriminación de que son objeto las mujeres, el Ararteko ha hecho cuanto ha estado en su mano para superar los obstáculos que impedían la igualdad entre hombres y mujeres.

Así y todo –prosigue el autor– hoy en día no son tanto las leyes como las costumbre, hábitos, las formas de pensar y actuar lo que hay que cambiar. Y en esa tarea estamos implicados todas y todos los ciudadanos de este País.

El Ararteko, aparte de apoyar a EMAKUNDE en su labor a favor de la igualdad, apoyará a cualquier colectivo que trabaje en esta tarea.

Actualmente, quizás la labor más importante a desarrollar sea la creación de una nueva cultura que incida en la igualdad entre hombres y mujeres.

Texto: Juan San Martín
(ARARTEKOA)

Hiru urte baino gehiago pasa dira 1989.ko martxoaren 8tik hona, Ararteko hau gure Autonomia Komunitatean Administrazio publikoaren aurrean hiritarren eskubideak defendatzeko burubelarri lanean hasi zenetik. Halaber, Emakume Langilearen Nazioarteko eguna ospatzen zen egun berean sortu zen Ararteko Erakundea. Bat etortze esanguratsu hau, ustekabeko gertakizun soiltzat ezezik, gizartean bereizkeria jasaten duten talde batzuen alde zenbait erakunde publikok egin dezakeen langintzaren garrantziaren ezaugarritzat ere hartu beharko litzateke.

Gaur-gaurkoz, ez dago dudarik, emakumezkoek, gure gizartean tratu desberdina jasaten duten taldeetako bat osatzen dute. Azken hamarkadetan arlo honetan garrantzizko aurrera-pausoak eman badira ere, ezin dugu ukatu gizarte maila guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen berdintzeari dagokionean, egungo egoera ez dela hoberena. Hortaz, ez litzateke zaila izaneren, lekuko gisa, eremu publikoaren sail garrantzitsuetan gizonezkoen eta emakumezkoen presentziaren desberdintasuna garbi adierazten duten zenbakiak eta datu argigarriak ematea.

Desberdintasun hau, alabaina, gizarte honetako lege-arauak egitean ia erabat erauzia geratu da. Beraz, ideiek eta egintzek kontrato bideak urratu dituzte: legezko arauak guztiz berdintzaileak dira, baina ez datoz inolaz ere bat gure gaurko gizartean egunero gertatzen denarekin, gizonezkoek eta emakumezkoek burutzen dituzten egitekoak kopuruz eta kalitatez guztiz bestelakoak bait dira. Teoria eta praktikaren, legearauen eta gizarte-azturen arteko kontrajartze honek, hauxe pentsarazten digu: batipat giza-bizieran bilatu behar

ditugula egoera hau iraunarazten duten arrazoiak. Orduan, lege arloan berdintasunaren aldeko eskaera nagusiak agorturik, gizartean berdintasun hori lortzeko ahaleginak egin behar ditugu, bi gizatalde hauen arteko erabateko eta benetako berdintasuna eragozten duten trabak kenduz. Eta helburu hori iristen saiatu behar dute bai erakunde publikoek, bai hiritar guztiek, gizonezko nahiz emakumezkoek.

Benetako ezberdintasun egoera honek, eskatu egiten du erakunde publikoek ekimen eraginkorrak bultzatzen, eta gainera, arrazoizko egiten dituen ekimen horiek. Politika hori emakumeak bizitza publiko eta pribatuko alor guztietan esku har dezaten ekintza positiboak burutzean datza. Gai honi dagokionez, guztiz bidezkoa da bereizketa positibo hau beste gizatalde batzuetan —esate baterako adingutxikoen— gauzatzen ahalegintzea, adingutxikoak ez bait daude adinekoekiko berdintasun egoeran beren eskubideak behar bezala betearazteko orduan. Jakina, lehenbizi parlamentariak eta, orohar, herri-agintariak hartu beharko dituzte horrelako neurriak eta, gure Autonomia Komunitateko Administrazioak neurri horiek zuzen betetzen dituzten ikertu ahal izango du Erakunde honek.

Hala ere, arestian aipatu dugunez, gaur egun emakumearen bereizkeriaren arazoa, erakunde publikoen eremua gaindituz, gizarte osoaren barne muinean zabaldu da. Izan ere, arrazoi ezberdinengatik, eskuarki norbanakoen arteko harremanetan da nagusi sexubereizkeria. Hortaz, ez da nahikoa legeak biribilki berdintasuna aldarrikatzea, ez dira nahikoa erakunde politikoek hartu behar dituzten neurriak ere. Gizartea orohar, eta batez ere gaiari arreta egiten dio-

ten gizataldeak, modu eraginkorran lotu behar zaizkio gizonak eta emakumeak erabateko berdintasun egoeran bizitzea eragozten duten pentsamolde, ohitura eta jokabideak pixkanaka aldarazteko betekizunari. Hau da, arazo honetaz, kultura berri bat lantzearen premia nabari da. Erakundeek, gizataldeek eta hiritarrek ere berdintasunaren alde girotu eta gauzatuko dituzten ekintzak, epe luzean erakunde publikoak burututakoak baino eraginkorragoak izan bide dira, nahiz eta erakunde publikoek, beroriek sortu dituen gizartea isladatzen duten. Beraz, gizonezko nahiz emakumezkoentzat eskubide berberak berma ditzen gizartea sortzeko, funtsezkoa da betekizun horretan hiritarrek esku hartzea. Gai honi loturik, ezin dugu aipatu gabe utzi hezkuntzak, eskolan erakusten digutenak zein etxean ikasitakoak, duen garrantzia.

Guzti horrengatik, Ararteko honek, emakumearen eskubideak aintzakotzat har daitezen herritarrek eta herri-erakundeek egiten duten lan bateratuaren alde egiteko asmo sendoa du. Horretarako, Emakunderen egitekoa babestiaz gain, gu bizi garen osa-beharreko gizarte honetan, elkar errespetatuz benetako berdintasuna lortzearren lanean diharduten elkarte eta gizatalde guztiena ere babestuko du. Halaber, herritar guztiei gure Erakundera jo dezaten eta xede hauek erdiesten lagun diezaguten eskatzen diegu. Orain arte ikusitakoak, argi eta garbi erakusten digu eraiki nahi dugun gizarte lagunkoiago hori iritsi dezagun, bai bertan egiazko ala ustezko bereizkeria arrazoirik egon ez dadin ere, ezinbestekoak direla eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren, baterako lana eta egiazko elkarkidetasuna.